

# VI KARMELE IGARTUA SORKUNTZA BEKA

## HAURRENTZAKO ESKOLA-ANTZERKI TESTUAK



### OINARRIAK

#### 1. LEHIAKETA

Aretxabaletako Udalak eta Bergarako Idazle Eskolak elkarlanean, VI. Karmele Igartua Sorkuntza Beka, Eskola-antzerki Testuen Lehiaketa antolatu dute.

#### 2. PARTE HARTZAILEAK

Lehiaketa honetan 16 urtetik gorako edonork parte hartu ahal izango du.

#### 3. BALDINTZAK

Egile bakoitzak gehienez ere bi antzezlan aurkeztu ahal izango ditu, euskaraz idatzita, eta testuek ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

- Jatorrizkoak, argitaragabeak eta beste inongo lehiaketetan saritu gabeak izatea.
- Inongo konpainiak – profesionala izan ala ez - antzeztu gabeak izatea.
- Zortzi urtetik 12 urtera bitarteko ikasleek antzezteko modukoa izatea.
- Antzezpeneren iraupena 30 minutu ingurukoa izatea, gutxi gorabehera, eta inolaz ere ez, 40 minutuz gorakoa.

#### 4. AURKEZTEKO MODUA

Lanak lerro artean tarte bikoitza utzita idatzi behar dira, eta hiru kopia bidaliko dira gutun-azal itxi batean sartuta. Gutun-azal horretan egilearen izenordea eta "VI KARMELE IGARTUA SORKUNTZA BEKA" idatziko dira, eta ondoko helbidera bidali behar dira:

Aretxabaletako Udala, Kultura saila  
Otalora 1  
20550 Aretxabaleta  
Gipuzkoa

Aipatutako gutun-azalaren barruan beste gutun-azal itxi bat sartuko da, eta bertan, ondoko agiriak:

- Egilearen curriculum laburra eta, horren goiko aldean, izen-deiturak, helbidea eta telefona.
  - NANaren edo pasaportearen fotokopia.
- dela, eta ez duela inongo lehiaketatan saririk jaso.

- Aitorpen idatzia, non adieraziko baita aurkeztutako lana jatorrizkoa eta argitaratu zein estreinatu gabea
- Halaber, egileak berariaz aitortuko du deialdiaren oinarriak ezagutu eta onartzen dituela.

#### 5. LANAK AURKEZTEKO EPEA

Epea 2016ko irailaren 30ean amaituko da.

#### 6. EPAIMAHAIA

Epaimahaia Bergarako Idazle Eskolak izendatuko du, eta hiru pertsonak osatuko dute.

#### 7. EPAIA

Hainbat irizpide finkatu dira saritu beharreko testuak aukeratzeko: kalitate literarioa, sormena, originaltasuna eta lana taularatzeko modukoa izatea.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da, eta 2016ko azaroaren 30a baino lehen emango da jakitera. Saririk jaso ez duten egileek lanak itzultzeko eskatu ahal izango dute Aretxabaletako Arkupe kultur etxean 2016ko abenduaren 1etik 12ra arte. Epe hori iraganda, lanak apurtu eta bota egingo dira.

#### 8. LAN SARITUAREN ARGITALPENA EDO ANTZEZPENA

Saritutako lanari dagokionez, ondorengo eskubideak izango dituzte Aretxabaletako Udalak eta Bergarako Idazle Eskolak:

- Lana inprimatu ahal izango dute, edo webgune hauetan publikatu: [www.idazten.com](http://www.idazten.com) eta [aretxabaleta.eus](http://aretxabaleta.eus).
  - Irakurketa dramatizatu edo lanaren antzezpena antolatu ahal izango dute, Bergarako egoitzan zein Aretxabaletan.
  - Egile-eskubideak lehen urtean bakarrik erabili ahal izango dituzte erakunde hauek irakurketa dramatizatu edo antzespenak antolatzeko.
- Egileak beti izango du lana erabiltzeko aukera, baina jasotako saria eta erakunde antolatzaileak aipatu beharko ditu, honela:
- VI. KARMELE IGARTUA SORKUNTZA BEKAren irabazlea ARETXABALETAKO UDALAK eta Bergarako IDAZLE ESKOLAK antolatua

#### 9. SARIA

Diru-sari bakarra finkatu da, 2.500 €-koa (bi mila eta bostehun euro). Kopuru horretatik, aplikagarriak diren zerga-arauak betez atxiki beharrekoa deskontatuko da.

Epaimahaiak egokitzen joz gero, aipamen bat egin ahal izango du. Aipamena jaso duen lanak ez du sari-ekonomikorik izango, baina egilearen lana argitaratu ahal izango da eta baita antzeztu ere, egileak hala nahi badu.



### ANTOLATZAILEAK



Aretxabaletako  
Udala  
KULTURA SAILA



[www.aretxabaleta.eus](http://www.aretxabaleta.eus)  
[www.idazten.com](http://www.idazten.com)